

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure enpresaren zerbitzua bezeroengana nola iritsiko den erabaki behar dugu.

Gure enpresak, zerbitzu bat eskeintzen du: kargadore elektrikoak ditu hiriko zenbait tokitan jendeak erabil ditzan. Horretako elektrizitatea beste enpresa bati erosi behar diogu, hau da, kanpo kanal bat behar dugu. Kanpo kanal hori Iberdrola izango da.

Bestalde, guk kanal propio eta elkartutako kanalaren nahasketa eskeintzen diegu gure bezeroei. Batetik, kanal propioa gurea den zerbitzu bat eskaintzen dugulako. Eta bestetik, elkartutako kanala gure produktua gureak ez diren parkingetan eskeintzen dugulako baita ere.

Gu ez gara pertsonalki egongo, harremana makina baten bitartez emango da. Zerbitzua ematen hasi aurretik zenbat denboraz erabiliko den jarri eta martxan jarri aurretik ordaindu egin beharko da. Horretarako bi modu egongo dira:

- Mugikorretik ordaintzeko, enpresak sortutako aplikazio bat egingo da, hau da, aplikazioaren bidez kargadorea zenbat orduz erabili nahi duzun finkatu behar duzu eta finkatutako ordu horiek bakarrik ordaindu beharko dira, PayPalen bidez besteak beste.
- Kargadoreek bertan edukiko dute banku txartelarekin ordaintzeko aukera ere, horrela mugikorra erabili nahi ez duenak ere aukera izango du zerbitzuaz gozatzeko.

Gainera gure zerbitzuak segurtasuna zaintzen du: zure kotxea kargatzen dagoen bitartean beste edonor aprobetxatu ez dadin. Behin desentxufatua zerbitzua desaktibatu egingo da eta mugikorrera alarma bat bidaliko da.

Bezeroak arazorik edukiz gero edo informazioa jaso nahiez gero, gurekin kontaktatzeko aukera izango du webaren, aplikazioaren edo telefono baten bitartez.

Gure kargadoreak hiriko puntu ezberdinetan kokatuta egongo dira:

Hiri osoan zehar eskuragarri egotea nahi dugu, horrebestez parking ezberdin askotan ipiniko ditugu, jendeak aparka dezaken tokietan: bai kaleko parking publikoetan, edonork erabiltzeko aukera izan dezan eta bai parking pribatuetan ere.